

## HAEGUE YANG

Haegue Yang artistak bere lana aurkeztu zuen "We Rule the School" izeneko mintegian. Horretarako, *Bartleby* Herman Melvilleren eleberri laburreko pertsonaiak baliatu zen. Herman Melvilleren kontakizuneko pertsonaiak kopiatzaile lana egiten zuen abokatuen bulego batean. Halako batean, uko egiten hasi zitzaion lanari, eta geroxeago ez zuen bulegotik irten nahi izan, baina horren arrazoiak ez zaizkigu argitzen. Bere arbuio osoa "nahiago nuke ez egin" esaldiaz adierazten zuen, errefusa guztiz gizabidezkoa, baina ez irmoa. "Bartlebyren erantzunak ez dakar erabateko ukazioa, aukera bat uzten baitu bere nagusiaren agindua onartzeko, baina nahiago luke ez bete", azaldu zuen Haegue Yangek.



Artistak *Bartleby* pertsonaia uztartu zuen Giorgio Agambenen *potenza* kontzeptuarekin. Hainbat egilek aztertu dute Herman Melvillek sortutako pertsonaiaren jokaera. Giorgio Agamben dugu horietako bat, eta *potenza* terminoa sortu zuen, hain zuzen ere, pertsonai hori definitzeko. Egile horren ustetan, *Bartleby*ren erantzunaren anbiguotasuna, esaldi horren ukazio-baieztapena, *potenza* delakoaz beteta dago. Haegue Yangen hitzetan, "kontzeptu hori alderdi ez-instrumental gisa uler liteke, alderdi horrez ziur ez gaudela; baina, uler dezakegu "ezerez" hori asmorik batere ez duen aukera bat balitz bezala?". Agambenek erabiltzen duen beste kontzeptu bat NOUS delakoa da, eta horren bidez aditzera eman nahi du pertsona bakoitzaren buruan bakarrik dagoen ideia bat, idatzita ez dagoena eta, hortaz, bitartekotasunik ere ez duena. Haegue Yangen aburuz, ideien egoera hori *potenza* kontzeptutik nahiko hurbil dago.

"Sarritan, lanak interpretatzeko prozesu errazegi eta populistak daudela ohartzen naiz; lan horiek eguneroko bizitzaren hainbat alderdiren fenomenoak irudikatzen dituzte, poetikari edo erretorikari inongo abagunerik utzi gabe, ezta filosofiaren anibalentziari ere. Artea errealitatean den bezalakoa irudika daitekeenari soilik lotzen bazaio, ba al du arteak ezer baliozkorik? Zergatik jarraitu behar dugu arteari buruz gogoeta egiten?" galdetu zuen artistak. Gaur egungo gaiez –hala nola immigrazioa– prentsako berrietara etengabe jo gabe mintzatzeko aukerak eta gai horiei buruz bere iritzia ez emateko erabakiak Haegue Yangen jardura eta diskurtsoa hurbiltzen dituzte Giorgio Agambenen *potenza* eta NOUS kontzeptuetara.

Ondoren, Haegue Yangek *Between reason and critique* izenburuko bere lana erakutsi zuen. Instalazio bat da, museo bateko berriro gabeko gune batean egina; bertan, lanparak erabiliz, giro berezia sortzen da. Lanparetako argiak, oso distiratsuak, bide ematen du gehienetan bisitariaren arreta gunetik kanpo geratzen diren xehetasunak hautemateko, eta argitasuna moteltzen denean, agerian geratzen da espazioaren egiazko egoera. Haegue Yangen proiektuaren inspirazioa gauez argitutako kantoia izan zen; argiaren efektuak soilik giro berezi eta erakargarria sortu zuen. Emandako egiturak gehiegi aldatu gabe, Haeguek errepikatzen du arrazoiaren eta kritikaren arteko giroaren une labur hori.

Haegue Yangen arabera, askotan jotzen dugu lan baten ingurunera edo estetikara, bere esanahia aurkitu nahian. "Nire ustez, idatzizkoaren kategoriak eta pentsamendu argigarriek harrapatuta gaude, eta jatorrizkoa dena, NOUS alegia, ahaztu egiten dugu", baieztatu zuen.

Kontzeptu horri lotuta, artistak beste lan bat erakutsi zuen, *Remote presence* izenburukoa. Proiektu horretan, Haegue Yangek Seulgo bere amaren etxeko altzarien artean zegoen aulki bat ipini zuen Artsonje Center kafetegian, bertako aulki baten ordez. Bere helburua pertsona jakin batzuen presentzia nola hautematen dugun aztertzea zen, nahiz eta pertsona horiek fisikoki urrun egon, eta baita objektuek horretan nola laguntzen duten ere. Horrez gain, anonimotasunaren eta intimitatearen arteko elkarrekotasuna nabarmendu zuen, sortzaile korearraren bizitzan behin eta berriro agertzen den alderdia baita.

Berriz izan zuen hizpide Agambenen *potenza* kontzeptua, *Storage piece* aurkeztu zuenean. Pieza hori artistaren bizitza pertsonalean izandako egoera jakin batean oinarrituta sortu zen, bere lanak gordetzeko lekurik gabe geratu baitzen une batean. Orduantxe, hain zuzen, galeria batean erakusketa egitea eskatu zioten eta, horrela, bere lan guztiak paketatuta eta galeriara eramatea erabaki zuen. "Nolabait ere, sortu nuen egoera anibalentea zen, lanak ez zeudelako metatuta, baina ezta erakusgai ere, paketatuta jarraitzen baitzuten", azaldu zuen.

Bukatu baino lehen, Haegue Yangek bere biografiaren datu batzuk eskaini nahi izan zituen. Seulen jaio zen 1971. urtean, eta txiki-txikitatik jakin zuen argi eta garbi artista izan nahi zuela, eta zehazki margolaria; baina geroago, arteaz zuen ikusmoldea aldatu zen, eta gaur egun aldaketaren prozesu horretan jarraitzen du. Lehen hezkuntza Korean ikasi zuen eta gero Alemaniara aldatu zen, bere herrialdeko jende asko bezala. "Artista naizen aldetik, egunero borrokatzen naiz espazio (espazio-ez) baten gabeziaren-eskaintzaren inguruko negoziaketarekin, eta sorterriko informatzailea naizen aldetik, nire agente-konspiratzaile estatusarekin eta immigrantearen izaerarekin", adierazi zuen bukatzeko.

-----

## CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.